

Herririk Herri |2|

250 ardo eta hainbat jaki dastagai
zapatu honetan IV. Ardo Saltsan ferian



Berbaz |8|

I. Totorikaguena: "Erdigunetik industriak
kentzea aldaketa handia izan da herrian"

Kultura |14|

Doktors Klub taldearen zuzenekoa,
martxoaren 31n, Rock Izar lehiaketan

Bere kanpamentuak antolatuko ditu Berbaroko elkartek

Durango• Urteetan pilatutako esperientzia baliatuta, Udan Olgetan izeneko herri kanpamendu propioak sortzeko pausoa emango du aurten Berbaroko euskara elkarteak. Maiatzaren 6ra artekoa da izena emateko epea. **3**

Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko egitarau zabala prest

Otxandio• Ekainean 10 urte egingo ditu Otxandioko Gaztetxeak, eta ospakizuna urte osora zabalduz, hainbat ekimen burutuko dituzte apirilean eta maiatzean. Hausnarke-ta prozesua ere abiatuko dute. **6**

Partidurik galdu ez duen talde bizkaitar bakarra da Iurretako

KIROLA • Jon Gurutz Vázquezek zuzentzen duen futbol taldea bigarren erregional mailako liderra da; hirugarrenarekiko 14 puntuko aldea daukate, gainera. Vázquezek azaldutakoaren arabera, Aste Santu aurretik igoera ziurtatzen ahaleginduko dira. **18**

ORDU ALDAKETA!

Domeka
goizaldean,
02:00etan
03:00ak
izango dira



• Izurtza

'Txakurzulo' jatetxea alokagai
ipintzeko pausua eman dute **6**

• Atxondo

Bertso Udalekuak antolatuko
dituzte uztailen Arrazolan **6**

• Elorrio

Hasi dira Udalatzeko AHTaren
tunela iparraldetik zulatzen **7**

Zapatuan inauguratuko dute Garaiko kultur etxe berria

> Dantzarien aurrekuaren ondoren barruko
azpiegitura berriak erakutsiko dituzte

> Ludoteka, KZgunea eta batzargelak
bateratu dituzte eta igogailua ipini dute **2**



Kepa Aginako

Bonbardaketa, erasotu zutenen begietatik ikusita

Durango• Martxoaren 31n 74 urte beteko dira Durango bonbardatu zutenetik, eta Berbaroko euskara elkarteak, Gerediaga elkarteak, Kriskitin dantza taldeak eta Durangoko Udalak hainbat eki-

men prestatu dute. Bonbak jaurtitzeko ari zirela Italiako abiazioak ateratako argazkiak erakutsiko dituzte, besteak beste. Erromako artxibo militarrean argazkiak digitalizatzen dihardute egunotan. **2**



a-metz

[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa - Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak - Gremioen
koordinazioa - Altxariak - Osagarriak

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 www.a-metz.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Martxoaren 31ko ekitaldien barruan, aurten Durango-ko bonbardaketan Italiako hegazkinak ateratako argazkiak aurkeztuko dituzte. Erromako artxibo militarrean daude, eta egunotan Gerediaga elkarteak Jon Irazabal eta Txelu Angoitia bertan dira, argazki horiek ikusi eta digitalizazio prozesua hasten. Hegazkinetatik ateratako argazki horien bitartez, “Durangon bonbak non bota zituzten argiagotzekin” ahal-ko dela azaldu dute Gerediagako kideak.

Datorren egunean 74 urte beteko dira Durango Aviazione Legionariako hegazkinen lehengo biderrez bonbardatu zutenetik. Azkeneko urteotan egin den legez, egun hori gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Berbarok, Gerediagak, Kriskitinek eta Durangoko Udalak.

Martxoaren 31ko bezpera Oroimen Eguna izan da azkeneko urteotan, eta horrela izango da aurten ere. Datorren eguaztenean, 19:30ean, San Agustín Aretoan Gerra Zibilaren kronika egingo du

Italiako abiazioak bonbak jaurti ahala egindako argazkiak ekarriko dituzte

Gerediaga elkarteak Erroman dira egunotan, argazkiak eskuratzen

Juantxo Egaña argazkilariak, Euskal Herrian gerra denboran ateratako argazkien proiektuagaz. Horren ondoren, *Goitik ikusita* aurkezpena egingo du Gerediaga Elkartek, eta bertan Erromatik ekarritako bonbardaketaren argazkiak erakutsiko dituzte.

Eguenean, bonbardaketaren urteurren egunean, eguerdian izango da lehen ekitaldia kanposantuan. Bonbardaketako eta Gerra Zibileko biktimei omenaldia egingo die Durangoko Udalak, eta kanposantura joateko autobusa antolatu du; 11:30ean Komen-

Bonbardaketaren 74. urteurrena gogoratzeko hainbat ekitaldi izango dira hilaren 30ean eta 31n

Baleuko eta Itesa ekoiztetxea Bizkaiko bonbardaketaren gaineko dokumentala filmatzen dabil

tukaletik irtengo du. Iluntzeko 20:00etan, berriz, Andra Mariko elizpean bonbardaketaren oroi-men-ekitaldia egingo dute.

Dokumentala

Baleuko eta Itesa ekoiztetxea Bizkaiko bonbardaketaren gaineko dokumentala filmatzen dabil, eta atzo Santa Susana elizan lan horren egitasmoa aurkeztu zuten. Oraingoz bederatzi herriak –tartean, Durango eta Otxandio– jendeak parte hartu du filmaketan. Herri guztietako testigantzak batu gura dituzte. ■ A. Ugaldé

ra eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik Ardo Saltsan.

Martitzenean egin zuten deialdia Iñaki Uribe eta Juanpe Azkaratek, Aitziber Irigoras alkatearen babesagaz. Iaz 1.300 lagun batu ziren Landako Gunean, eta Iñaki Uribek adierazi duenez, “gaurden krisi sasoian kopuru hori mantentzen bada emaitza positiboa izango litzateke”. Udalak turismo eskaintza sustatu du bisita, sarre-ra eta lo-lekua batuz.

Nobedadeak

20 gazta mota probatzeko aukera emango duen Gaztaren Tunela eta Tomate Iberikoa Ort Erara dira edizio honetako nobedade nagusiak. Tomate ekologiko hau atmosfera jakin batean labean deshidratatu egiten da.

Gaztaren Tunela eta Tomatea Ort Erara dira aurtengo nobedade nagusiak

Berriro egingo dute itsumustukako ardo dastatzeko lehiaketa, 19:45ean

Egitaraua aurkeztu zuen Azkaratek, eta, esaterako, berriro egingo dute itsumustukako ardo dastatzeko lehiaketa, 19:45ean. Bestalde, tabernari batek irudiak sortuko ditu kafeagaz, eta Saltsanekoek miniaturazko jakiak prestatuko dituzte. Hainbat etxeren laguntza izango dute; besteak beste, La Tostadorak kafetegi zerbitzua ipini-ko du, eta Eusko Labelen okela ere bertan izango da. ■ M.O.

Aurrekontu parte-hartzaileak eskatu ditu Ezker Abertzaleak

Martitzenean osoko bilkuran eztabaidatu behar dituzte aurrekontuak Durangoko Udalean. Ezker Abertzaleak gobernu taldearen proposamenari osotasunezko emendakina aurkeztu dio la jakin eragin du asteon.

Prentsara bidalitako oharrean nabarmendu dute “gobernu taldearen eta Ezker Abertzalearen kudeaketa ereduak zeharo desberdinak” direla, eta horregatik aurkeztu dutela aipatutako emendakina.

Aurrekontuak prestatzeko “ziklo osoan parte-hartzea jorratzea” gurako luketela azaldu dute Ezker Abertzaleko ordezkariak, eta gobernu taldeak “bilera bakar batera” deitu dituela salatu dute, martxoaren 22kora: “Ez dugu uste negoziatzeko tarterik ematen duenik, ezta horretarako asmo errealek egon denik ere”.

Ezker Abertzaleak “sistema aldatzeko nahikoa proposamen, lanerako gaitasun eta konpromiso” daukala azaldu du. ■ A.U.

Udala erakunde publikoen eta herritarren lotune izateko eskaria

Durangoko herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein administrazio publikotan aurkeztu beharreko dokumentuak Durangoko Udalak kudeatzea eskatzen duen mozioa aurkeztu du PSE-EE alderdiak; modu horretara, udalak bitartekari lana egingo luke herritarren eta erakunde publikoen artean.

Mozio horregaz helburu bi bete gura dituzte sozialistek. Alde batetik, herritarrek Eusko Jaur-laritzaren baitako erakundeetara hurreratu gura dituzte, “alde bien hartu-emanak arinduz”, Pilar Rios zinegotziaren esanetan. Bestetik, diru-laguntza eskaerak egin behar direnean, sarritan Donostia, Gasteiz edo Bilbora joan behar izaten dira herritarrek, eta horrek “hainbat eragozpen sortzen ditu; joan-etorriari lotutako gastu ekonomikoak, besteak beste”, diote. Hori ekiditiko asmoa ere badu sozialisten mozioak helburu duen akordioak. ■ J.Derteano.

EAEko erakunde publikoei zuzendutako eskariak Udalak kudeatzeko eskatu du PSE-EEK

80 upategitik gorako ardoak izango dira dastagai, bihar, IV. Durango Ardo Saltsan ferian

Landako Gunean burutuko da Saltsan Katerinetik sortutako ekimena

250 ardo baino gehiago dastatu ahal izango dira azoka honetan, antolatzaileek prentsaurrekoan azaldu dutenez. Gainera, hainbat produktu dastatu ahal izango dira: olio, urdaiazpiko iberikoa, aha-

11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik

tea, izokina eta hegazu ketua, antxoak eta kafea, esaterako. Sarre-rak 12 euro balioko du; delicatessen produktu etarako, berriz, prezio baxuko txartelak egongo dira eskuragarri. 11:00etatik 15:00eta-



Asteon eman dute antolatzaileek deialdiaren berri, Durangoko alkatea lagun dutela.

Udan Olgetan: Berbaroren 2011ko herri kanpamentuak

Ekainaren 27tik uztailaren 29ra egingo dituzte udalekuak, 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat

“Euskara eta euskal kultura ardatz” hartuta, aurreko Berbarok kanpamentu propioa antolatu du; Udan Olgetan. 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat bost asteko egitaraua prestatu dute, ekainaren 27tik uztailaren 29ra, Durangon. Antolatzaileek azaldu dutenez, “aste bat, bi, hiru, lau edo udaldi osoa igarotzeko aukera” egongo da.

Aste bakoitzean gai bat landuko dute; baserria, artea, ura, lanbideak eta mitologia. Herriko hezi-

tzaileek dinamizatuko dituzte ekintzak, astelehenetik barikua, 9:00etatik 13:30erako ordutegia-gaz. Astean behin, arratsaldera arteko irteera egingo dutela aurreratu dute Berbaroko kideek.

Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 6a izango da. Ekainean gurasoekin batzarra egingo dute azpiegiturak erakusteko. Informazioa gura duenak 94 620 25 40 zenbakira deitu edo gazteak@berbaro.com-era idatzi dezake. ■ A.U.



Berbaroko kideak udalekuen irudia erakusten.

GARAI

Bihar zabalduko dituzte kultur etxe berriko ateak, eguerdian

Eguerdiko 12:00etarako antolatu dute instalazioak ikusteko bisita



Lanak elbarrien baldintzen arabera egin dituzte; igogailua ipini dute, adibidez.

U rte eta erdiko lanen ondoren, bihar inauguratuko dute Garaiko kultur etxe berria. Otea-Loran elkartearen gainean egokitu dute, eta ludoteka, KZgunea zein batzargelak jasoko ditu. Biharko inaugurazio ekitaldia 12:00etan hasiko da.

Durangaldeko ordezkari politikoak gonbidatu dituzte biharko hitzordura, eta hauei harrera egingo zaie hasiko dute ekitaldia. Dantzariak aureskua egingo dute, eta

ondoren barrura sartuko dira, instalazioak ezagutzeko.

Hiru fasetan

Kultur etxe berriko lanak 2009ko irailean hasi zituzten, eta geroztik hiru fasetan garatu dira. Lehen

Ludoteka, KZgunea zein batzartzeko gelak jasoko ditu kultur etxeak

nengoan igogailua ipini, teiltua konpondu eta fatxada margoztu zuten; 145.000 euroko aurrekontua izan zuten lan horiek.

Bigarren fasean, 2010ean, argia eta uraren distribuzioa egokitu zuten; gainera, komun berriak ere ipini zituzten, 129.784 euroko aurrekontuagaz. Hirugarrenan, aurreko, eraikina hornitu dute 19.000 eurogaz; wifia, altzariak eta ordenagailuak ipini dituzte, esaterako. ■ M.Onaindia.

Abertzaletasunetik eta ezkerretik munduari irekiak.
Ezker abertzalea sendotzen eta XXI. mendeko ezker zibil eta zabala eraikitzen.

IREKI BIDEA EZKERRARI

aralar

DURANGALDEA

Eskualdeko eta Peruko ikasleak, bizi ohiturez elkarri galdezka

Bideo-deien bitartez, hiru konexio egin dituzte Lambayequera, Eskolako Agenda 21en barruan

Hemen fabrika asko ote ditugun galdetu du pantailan ikusten den neskak, eta Berriztik, mutikoak "Bai, gure ustez larregi" dio. Elkarren bizimoduaren berri edukitzeko bideokonexioak izan dituzte asteon Durangaldeko eta Peruko Lambayeque eskualdeko gaztetxoek. Hainbat galdera egin dizkiote elkarri, eta korreo elektroniko helbideak trukatatu ere bai.

12 eta 15 urte bitarteko eskualdeko gaztetxoek parte hartu dute bideo-foroetan

Eskolako Agenda 21 programaren barruan egin dituzte bideo-foro horiek asteon. Emaús funda-

zioaren bitartez, Peruko Compromiso por la Mujer elkarteagaz bat egin dute, eta 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek elkarren berri izateko aukera eduki dute. Bai han bai hemen, kontsumo arduratsua lantzen ibili dira ikastetxeetan, eta kontsumo ohituren eta kulturaren gaineko galderak egin dizkiote elkarri.

Astelehenean Durangoko ikasleek egin dute konexioa, Durangon. Martitzenean Berrizko kulturetxean elkartu dira Berriz, Elorrio eta Zaldibarko ikasleak, eta egunean Iurretako institutuan eduki dute bideo-foroa Iurreta, Abadiño eta Otxandiokoek.

Desberdintasunekin harrituta Batean eta bestean zer jaten duten, nondik datozen jaten dituzten pro-



Martitzenean Berriz, Elorrio eta Zaldibarko ikasleen txanda izan zen. Kepa Aginako

duktuak, zer adinetan hasten diren ikasten, zer adinetan ezkontzen diren... Deneriko galderak izan dira foroetan. Berrizko bideo-foroan perutarrek harritu egin dira hemenezkondu 30 urtetik gora egin dela entzutean, eta han 15 urtetik aurrera lan egiten dutela entzuteak ere harridura sortu du Durangaldeko gaztetxoengan.

Gazteleraz gainera, hemen euskara dugula kontatu diete ber-

Kontsumo arduratsua lantzen ibili dira han eta hemen, eta horren gaineko galderak egin dizkiote batzuek besteei

takoek perutarrei, eta han ketxua daukatela azaldu diete, baina ez dakitela askorik. Aisialdiaz ere egin dute berba, eta galderen artean helbide elektronikoak trukatatu dituzte. Amaitzeko batzuek besteei abesti bana abestu diete: Berrizen *Ikusi mendizaleak* aukeratu dute eta Perun modan dagoen balada bat. Elkarrekin hartu-emanen jarraitzeko asmoz amaitu dute bideokonexioa. ■ A. Ugalde.

IURRETA

Errotondak bideratzen du jadanik N-634ko trafikoa

Semaforoak kendu dituzte N-634 errepide nagusiko biribilgunean, trafikoa arinduz

Semaforoak kendu egin dituzte, eta dagoeneko biribilguneak bideratzen du N-634 errepide nagusiko trafikoa, Iurretatik igarotzen den zatian. Goiurara edo herrigunera sartzeko errepide nagusian zegoen semaforodun bidegurutzeak eragindako auto ilarak arindu ditu errotonda berri horrek. Foru Aldun-

Foru Aldundiak gauzatu ditu obrak, 1,16 milioi euroko aurrekontuagaz

diaren ardura diren herri-lanak 1,16 milioi euro inguruko aurrekontua izan dute.

Auto pilaketak saihesteko Semaforoek lagundutako biribilgune zatituaren ordez ohiko errotonda egin dute N-634an. Horretara, Abadiñotik datozenek ez dute biribilgunean sartu beharko Iurretako herrigunera sartzeko. Biribilgune berriak N-634 errepidean sortutako auto pilaketak saihestea du helburu. Lanak azaroan hasi zituen Bizkaiko Aldundiak. ■ A.B.

MALLABIA

Euskara eskoletarako izena emateko aukera martxoan zehar

Udalak ordainduko die ikasleei AEK-k ematen dituen euskara klaseen matrikularen kostua



Aurten goizez eta arratsaldez eskola bana antolatu dute.

AEK-k urrian hasi zuen euskara ikasteko kurtsoa; orain, martxoa amaitu arte, berriro dago izena emateko aukera. Mallabian errolatuta dagoenari Udalak ordainduko dio matrikula. Honako e-maila ipini dute izena emateko: kaltxango@ae.org.

Aurten arratsaldez ezeze, goizez ere talde bat osatu dute. Horrek, "malgutasuna eskaintzen die ikasleei, eta lanagaz bateratzeko erra-

zagoa da", diote AEK-ko kideek. Klaseak astelehenetik eguenera dira, 09:00etatik 11:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Julian Iantziren hitzaldia

Korrika Kulturalaren barruan, *Euskara konkistatzen* izeneko hitzaldia eskainiko du Julian Iantzik gaur, 20:00etan Kultur Etxean. Orraitio euskara elkarteak antolatu du ekitaldia. ■ J.D.

BERRIZ

Osasuna eta nutrizioaren gaineko tailerra martxan

Landa XXI landa inguruko emakume eta sendien elkarteak, Abadiñon izandako arrakasta ikusita, Berrizen ere osasuna eta elikadura oinarri dituen tailerra ipiniko du martxan martitzenean. Azaldu dutenez, "bere bizi kalitatea hobetzeko prest dagoen edonork" parte hartu dezake.

Tailerra teorikoa izango da batez ere, eta horretarako dokumentazio guztia eskuragarri izango da. Dena dela, ohikoak ez diren hainbat jaki probatzeko saio praktikoa ere egingo dutela aurreratu dute.

Martitzen eta eguenetan burutuko dituzte saioak Kultur Etxean

Oihane Unzalu dietistak gidatuko du tailerra, eta txirrindulari profesional baten bisita ere jasoko dute. Martitzen eta eguenetan burutuko dituzte saioak Kultur Etxean; guztira 50 ordu iraungo du tailerrak, 20 saiotan banatuta. Euskara eta gazteleraren artean aukeratu ahalko dute interesatuek. Matrikula 50 euro da, eta lehenengo egunean ordaindu beharko dute. Amaitzean diploma jasoko dute parte-hartzaileek. ■ M.O.

NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)

Tel.: 94 620 01 62

Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es

www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

BI LAGUNENTZAKO ETA ZOZKETARIK BAKO ITSAS BIDAIA OPARI BAUTISTAN



1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETA BATEGATIK

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu arteko eskaintza. Instalakuntza libreako elektrotresnen erosketatik ez da baliagarria eskaintza honetarako.

Zurekin ospatu gura dugu gure 40. urtebetetzea.
Zuen etxebizitzak hornitzen emandako 40 urte.

Zuei eskerrak saririk ohoretsuenak
eman dizkigute urteotan:
Merkataritza Sari Nazionala;
Euskal Merkataritza Saria;
Berrikuntzari Saria.

Benetan eskertzen ditugu aitoren hauek guztiak,
baina gure **SARI NAGUSIA** zure konfiantza
izan da eta izango da.

Harritu egin gura zaitugu eta horregatik jarri dugu zure esku informazio guztia gure webgunean eta
Bezeroaren Arretarako gure telefono zenbakian, ez dezazun inongo zalantzarik izan:

**ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAT, ZOZKETARIK GABE,
BETI BEREIZTU IZAN GAITUEN GARDENTASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

 **94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

OTXANDIO

Gaztetxearen 10. urtemuga ospatzeko prestatutako ekitaldiak aurkeztu dituzte

Herriko gazteriaren gaineko hausnarketa egiteko aprobeztatuko dute



Joan zen zapatuan egin zuten aurkezpena, herritarren aurrean.

Gaztetxeak hamar urte bete-ko ditu aurten, eta Gazte Asanbladako kideek hausnarketa egingo dute, Otxandio-ko dozenaka gazte gaz banan-banan elkarriketatu. “Gazte guztien elkarlana sustatuko duen proze-”

“Gazte guztien elkarlana sustatuko duen prozesua” jarri dute martxan

sua” jarri dute martxan, euren berbetan.

Diotenez, “gaur egun dugun gizarte ereduari, gazteen proiektuek hamaika oztopogaz egiten dute topo, eta, ondorioz, gazteok elkarlanean jarduteko ditugun

zailtasunengatik, nekez lortzen dugu gazteen arteko batasuna irudikatzea”. Prozesu berri horretan, gazteen arteko hartu-emanak “sendotzeaz” gainera, “gazteen gogo eta grinak batu eta gauzatzea” izango dute helburu. “Egunerokotasunean, guztion artean gauza txikiak sortuz lortuko ditugu benetako aldaketa eta gura dugun Otxandio”, diote gazteek.

Hausnarketaz gainera, egitaraua prestatu dute “orain hamar urteko lanaren eta borrokaren fruituak indartsu” segitzen duela berresteko. Ekainaren 4an ospatuko da jai nagusia. ■ M.Onaindia.

“Gazteen gogo eta grinak batu eta gauzatzea” dute helburu prozesuan

EGITARAUA

Apirilak 2

Futbito txapelketa

Apirilak 9

Udaberri jaiak

Aste Santuan

Tailerrak

Maiatzak 6

Argazkilaritza ikastaroa

Maiatzak 7

Mendi irteera

Maiatzak 13

Photoshop ikastaroa

Maiatzak 14

Eskalada ikastaroa

Maiatzak 20

Dantza ikastaroa

Ekainak 4

Urteurren jaiak

Korrika Batzordearen bilera deitu dute gaurko

Euskararen alde AEK-kurte birik behin antolatzen duen ekimenak 17. edizioa beteko du aurten, eta Trebiñutik Donostiara-ko ibilbidea osatuko du apirilaren 7tik 17ra bitartean. *Maitatu, ikasi, ari... euskalakar!* izango du lema. Korrikaren inguruan ekitaldiak eratu gura ditu Otxandio-ko Euskara Batzordeak, eta horregatik deitu du batzarrera. Arratsaldeko 19:30ean egingo dute batzar hori, Kultur Etxean.

Korrikaren inguruan ekitaldiak eratu gura ditu Euskara Batzordeak

Zirriborroa aurkeztuta, guztien artean zehaztuko dute behin betiko egitaraua

Ekimenen zirriborroa aurkeztuko dute bertan, eta guztien artean behin betiko egitaraua zehaztuko dute. Batzordetik azaldu dutenez, “herriko euskalzale guztiak gonbidatuta daude batzarrean parte hartzera”.

Bestalde, joan zen domeka eguerdian ere Korrikako materiala saltzeko postua ipini zuten plazan. ■ M.O.

IZURTZA

Udalaren jabetzako Urkiolako Txakurzulo jatetxea zena alokagai

Urtebete darama Txakurzulo jatetxea izandakoak hutsik; alokagai ipini gura du udalak berriro

Izurtzako Udalaren jabetzako den Urkiolako Txakurzulo jatetxea izandakoa alokairuan emateko baldintzak onartu zituzten, joan zen barikuko udalbatzarrean, Ezker Abertzaleko udal gobernua eta oposizioa jeltzaleek, aho batez. Iaz arte jatetxea eta landa-etxea hartzen zituen eraikinari erabilpenen bat emateko beharra nabarmendu zuten alderdi biek barikuko udalbatzarrean.

Jeltzaleek diotenez, “urtean 20.000 euroko sarrera” dakar alokairuak udalarentzat

Eskatzaileen proposamen ekonomikoa eta jarduera baloratuko dituzte

Udalaren 2011ko aurrekontuen baitan jasota dagoen bezala, eraikinaren alokairuagatik diru-sarrerara berreskuratzeko da erabaki honen helburua, udalarentzat “urtean 20.000 euroko diru-sarrerara” baitakar.

Zerbitzu publikoa lehenetsi Eraikina alokairuan emateko joan zen barikuan onartu zuten baldintza-orrian jasotzen denez, batetik, eskaintza ekonomikoa eta, bestetik, eskatzaileak proposatzen duen jarduera baloratuko ditu esleipena egiteko udalak. Iker Ballarín zinegotziaren berbetan, eraikin horretan taberna, aterpetxea edo zerbitzu publikoren bat ezartzea lehenetsiko du udalak.

Baldintza-orria BAOan argitaratu ondoren, hamabost eguneko epea izango dute interesdunek euren proposamenak bidaltzeko, eta hilabete baten buruan egingo dute esleipena. ■ I.E.

MAÑARIA

Udaberriko Kontzertuetan jardungo du Kirikiño

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Udaberriko Kontzertuak egitarauan parte hartuko du datozen hileetan Kirikiño abesbatza mañariarrak, Bizkaiko beste herri batzuetako 87 abesbatzegaz batera.

Biharkoaren aurreko azkeneko emanaldia martxoaren 12an eskaini zuten Zornotzan, eta bihar, martxoaren 26an, Gorlizen jardungo dute beste abesbatza bizkaitar bigaz kartela konpartituz. Musika erlijiosoa eta konposizio garaikideak uztartuko dituzte Uribe Kostako emanaldian.

Gorlizen eskainiko du Kirikiño abesbatzak emanaldia, martxoaren 26an

Ahots zurien taldea da 16 emakume mañariarrek osatzen duten Kirikiño, iaz mende laurdena ospatu zuena. Ziklo honen barruan, herrian bertan ere, Mañarian, maiatzaren eskainiko dute emanaldia. ■ I.E.

ATXONDO

Bertso Udalekuak egingo dituzte aurten Arrazolan

Bertsozale Elkarteak antolatuta, uztailaren 24tik 30era 45 gazte izango dira Iturralde aterpetxean



Arrazolako Iturralde aterpetxea.

Euskal Herriko bost txokotan Bertso Udalekuei txanda bana antolatu du Bertsozale Elkarteak, eta eurretako bat Arrazolan egingo dute, Iturralde aterpetxean. 12 eta 14 urte bitarteko gazteentza-

Bertsolaritzagaz lotutako gaiak landuko dituzte 12tik 14 urtera bitarteko gazteek

ko udalekuak izango dira, eta uztailaren 24tik 30era Arrazola inguruetan ibiliko dira, besteak beste, bertsolaritzagaz lotutako gaiak jorratzen.

Izena emateko epea duela gutxi hasi du Bertsozale Elkarteak, eta asteon bete egin dira udalekue-tako plazak. Arrazolara, beraz, 45 lagun etorriko dira. Beste udalekuak Bidarrain, Zerainen, Irañetan eta Zuhatzan izango dira. ■ A.U.



Durangaldean labor

Herri Programan parte hartzeko deia Durangon

Postontzietan inkesta banatu du Durangoko Ezker Abertzaleak, "herri programa osotzeko diagnostiko herritarra" eginguran. "Diagnosi horren falta" salatu zuten joan zen egunean, Herri Programaren aurkezpenean. Udalak hirigintza planik ez duela eta "ikereta soziodemografiko baten premia" nabarmendu zuten ekitaldian.

Egun osoko irteera egingo du Más Curvasek

Bihar, 10:00etan, Más Curvasen lokaletik irtengo dira. Bergara, Zumarraga, Beasain, Altsasua, Urbasa, Zudaire eta Legutión zehar ibiliko dira Durangora bueltatu aurretik. Itzulera 19:00ak ingururako aurreikusita dute. Ibilbidearen erdian, Urban, geraldia egingo dute bazkaltzeko. Nork bere janaria eraman beharko du.

Zapaburu Eguna ospatuko dute Zapatuan

Durangoko Zapaburu gazte konpartsak Zapaburu Eguna antolatu du biharko. 12:00etan aisialdiaz eztabaidatuko dute. 15:00etan bazkaritara batuko dira Andra Mariko aterpean; ondoren olinpiadak egingo dituzte, eta ekitaldi nagusia ere bertan egingo dute. Amaitzeko, elektrotxaragagaz kalerik kale zabalduko dute jai giroa.


Ezker Abertzalearen lau urteko balantzea Elorrión

Elorrioko Ezker Abertzaleak Elorrioko Udalean azken lau urteotan burututako lanaren berri ematen duen aldizkaria argitaratu du. Legegintzaldiko balantzea egiteko asmoagaz, ezker abertzaleko zinegotziak elkarriketatzen dituzte bertan, eta egin da dauden edo egingo diren egitasmoen berri ematen dute.

ELORRIO

Hasi dira Udalatx azpiko tunela zulatzen iparraldetik

Orain dela aste bitik gau eta egun dabilta Santa Luzia inguruan obretan



Bizilagunek hainbat eragozpen izan dituzte beharrak hasi zirenetik.

Hegoaldetik hasi ziren 2009an AHTaren ibilbidean Udalatxeko tunela egiten, eta orain iparraldetik, Elorrio aldetik, hasi dira zulatzen. Adifetik azaldu dutenez, "ia-ia tunelaren erdia eginda" dago, eta beste muturretik ekin diote 3.160 metroko luzera edukiko duen tunelari. Abiadura Handiko Trenaren ibilbideko bigarren tunel luzeena izango litzateke.

Udalatx azpian trenbide bikoitza ipintzeko tunela egiten dabilta. 85 metroko azalera edukiko du. Tunelaren bi muturretan 12 metroko tunel artifizial bi egiteko asmoa dauka Adifek.

Lanak, egunez eta gauez

Igurria ingurura duela hilabete inguru heldu ziren beharginak bidea prestatzeko, eta lanek kaltetutako auzokide batek azaldu duenez, duela pare bat aste hasi ziren tunela zulatzen. Beharrean "gau eta egun" dabilta eta "auzokideek euren kexa adierazi diete beharginen: "Astelehenean, adibidez, pike-ta bategaz zarata handia atera zuten". Ingurugiro-inpaktuaren txostenak batzen dituen mugetatik "bat bera ere ez" dabilta larrespetatzen salatu dute auzokideek. Txosten horrek zehazten duena "errespetarazteko beharra" nabarmendu dute.

AHT Gelditu! elkarlaneko kideak, euren aldetik, atzo ziren batzartekoak eta laster emango dute euren irakurketa eta asmoen berri. ■ A. Ugalde.

3.160 metroko luzerako tunela Arrasatetik hasi zuten 2009ko azaroan

Ingurugiro-inpaktuaren txostena ez dabilta larrespetatzen diote bizilagunek

Herriko historia eta leku izenak, ikas-materialetan

Elorrioko toponimia eta historia lantzeko hainbat ariketa sareratu ditu udalak. Ipuinak, abestiak, herria hobeto ezagutzeko ariketak... Guztira, 70 bat ariketa prestatu dituzte, eta laster

Laster 70 ariketa inguru sareratu ditu udalak
www.elotop.org guzuean

www.elotop.org helbidean egongo dira eskuragarri. Ariketez gainera, argazkiak, audioak eta bideoak ere egongo dira Interneteko atari horretan.

Bittor Uriarte euskara teknikaria egunotan ikastetxeetan ariketen gaineko azalpenak ematen ibili da. Berak azaldu duenez, "material gehiago sortzen joatea da asmoa". Materiala zelan landu, irakasleen esku utzi dute. ■ A.U.

ZALDIBAR

Albeiz mendira doaz domekan Zaldua Mendi Taldekoak

Zaldua Mendi Taldeak irteera berria prestatu du domeka honetarako. Arabako Altzania mendilerroan kokatuta dagoen Albeiz mendira joango dira mendizale zaldibartarrak. Horretarako, goizeko 08:00etan ipini dute hitzordua Udaletxe aurrean, bertan batu eta mendira batera joateko. Egunpasa egiteko aukera eskaintzen du, beraz, Zaldibarko mendi taldeak.

Altzania mendilerroa Asparrrena bailaran dago, Araba ekialdean. 25 mendi baino gehiago topatu ditzakegu ingurune horretan. Albeiz mendira Araiatik edo izen bereko herritik, Albeiztik, hurreratu daiteke; hain zuzen ere, handik irteten eta ordu eta erdira zapaldu daiteke ton-torra. 1.012 metroko altuera du Albeiz mendiak. ■ M.O.

ABADIÑO

Hizkuntz gaitasuna eta motibazioa lantzeko saioak

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako neska-mutil abadiñarrei zuzenduriko saioak dira Udalak antolatutakoak. Maiatzeko eta ekaineko zapatuetan burutuko dituzte saioak, eta Berbaro Euskara elkarteak gidatuko ditu.

Berbaro elkarteak hezitzaileek gidatuko dituzte zapatuetako saioak

Udaletik diotenez, "neska-mutilek euskararen ezagutza sendotu eta erabilera lantzeko, jolasen oinarritutako metodologia erabiliko dute" saioetan. Helburuak eskola-umeen hizkuntza-gaitasuna eta euskaraz jarduteko motibazioa lantzea ditu egitasmoak. ■ I.E.

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

Uribarri, 21 (zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26
DURANGO
Ireki berria!

EL MUNDO DEL JABON

BERBAZ >

“Gerediaga eta lurreta artean saihesbidea egitea ezinbestekoa da herria garatzeko”

Alkatetzara heltzean herria “triste” sumatzen zuen; urteotan “aldaketa asko” egin dituzte, lurretako alkatearen iritziz

Datorren legegintzaldian etxebizitzak eraikitzen hasteko moduan egotea itxaroten du lurretako alkate Iñaki Totorikaguena. Herriaren erdiguneaz eta kofradiez galdetu diogu, eta gerorako zer asmo izango lituzkeen kontatu digu.

Zelakoa izan da legegintzaldia?

Orokorrean nahiko ondo joan dela ikusten dugu. Udalera etorri ginean herria apur bat triste zegoen inpresioa geneukan, eta inpresio horri buelta ematen saiatu gara. Lortu dugula uste dut; lau urtetan gauza asko egin ditugu. Adibidez, azkeneko urtean lau eraikin industrial zahar bota ditugu; txapa-lantegia, Fundiguel, Mecanizados Maspe eta gasolindegia aurrean egon zen tailer txiki bat ere bai. Erdigunean egon ziren eraikin horiek botatzea aldaketa handia izan da lurretarentzat.

“Erdigunean zeuden industriak botatzea aldaketa handia izan da”

Erdigune horretan etxebizitzak egiteko asmoa daukazu.

Ez dira gauza errazak, etxebizitza sektore guztiek arazo bat daukatelako; denak daude lur industrialean, eta lurreko kutsadura kentzeko beharrak egin behar dira. Horrek zaildu egiten du prozesua. Datozen urteetako beharra Bideondon, Fundiguelen eta Paduretan etxeak eraikitzea izango da. Paduretan 61 etxebizitza tasatu joango dira, eta horiek izango dira eraikitzen lehenengoak. Fundiguelen lehen fasean prezioak adostu gura ditugu, eta Bideondon tasatuak atera gura ditugu, 30-40. Lurrak prest uztea da kontua, gero, apurka-apurka etxeak eraikitzeko. Egoera ekonomikoa dela-eta, astiro joango dira sektoreak garatzen, merkatua momentu honetan ez delako gai denak egiteko.

Herria banatzen duen errepidea lurperatzearen gaia irten zen aurrekontuen udalbatzarrean...

Nik uste dut lurperatzea oso gaitza dela, teknikoki eta ekonomikoki; izugarritzko diru kopurua da eta teknikoki ez dakit egingarria den. Beste neurri batzuk aztertzea erabaki dugu. Bide horri konponbidea eman behar zaio, eta pausuak bagabiltza ematen. Gerediagatik lurretara ordainsaria VIA-Tagaz doan ipin-



“Errepide nazionala lurperatzea teknikoki eta ekonomikoki gaitza dela uste dut; beste bide batzuk aztertu behar dira arazoa konpontzeko”

tzearen neurria hor dago, eta nik uste dut aukera dagoela Aldundiak neurri hori zabaldu eta lurretatik Gerediagara benetako saihesbide bat egiteko; hori guretzat ezinbesteko pausua da, trafiko piloa desplazatzeko litzatekeelako. Bidebarrieta-ko auzokideen bizi kalitatean eragingo luke, eta aukera gehiago izango genituzke beste neurri batzuk ipintzeko; trafikoa lasaitu eta kotxeei lurreta erditik pasatzeko eragozpenak ipintzea, esaterako. Gure asmoa da epe ertain batean bide forala den hori gure kale edo

etorbide bihurtzea, eta saihesbidea ezinbestekoa da horretarako.

Kofradiak lurretako zati garrantzitsua dira. Udala euren premietara heltzen da?

Nahiz eta erdigunean inbertsio handiak egin, nik uste dut ez garela ahaztu auzoetaz; oso garrantzitsuak dira lurretan. Auzoetako azpiegiturak hobetzen saiatu gara; bide asko konpondu ditugu Santa Apolonian, Bakixan, Orozketan... Argiak ere ipini ditugu, 54 farola, nahiz eta leku batzuetan ez duten lar ondo funtzionatu eta konpontzen gabiltzan.

Iñaki Totorikaguena•

lurretako alkatea

- 40 urte dauzka
- Zortzi urtez zinegotzi izan eta gero lau urte daramatza alkatetzan

“Auzoen premietara heltzeko kofradiak dira interlokutore egokienak”

Taxi Auzunea ere ipini dugu martxan; hutsunea ikusten genuen eta erdiguneagazko lotura indartzea gura izan genuen. Hilean 230 bidaia inguru egiten dira, eta proiektu garrantzitsua da nire ustez. Legegintzaldi hasieran kofradiekin kontaktuan ipini ginen, auzuneetako arazoetara heltzeko interlokutore egokiak izan zitezkeela ikusita. Azkenean ez zen ezer sortu, baina interlokuzio behar horiek zelan egin daitezkeen aztertzen jarraitu gura dugu. Orozketan amankomunazgoaren bitartez emakumeen foroa egin zen eta auzoko premien gainean berba egin zuten; oso ondo joan zen eta horrelako besteren bat egitea ez dugu baztertzen.

Krisia dela-eta, herrira begira zer dago udalaren esku?

Egia esan, udalak askorik ezin deza egin. Laguntza batzuk sortzen ahalegindu gara; fatxadak konpontzeko, gazteen alokairuetarako... baina hortik aparte gauza gutxi egin genezake. Ongizate arloan laguntzak bermatzeko dirua ipintzea ere garrantzitsua da, eta derrigortuta ez bagaude ere, apustua egin dugu zentzu horretan.

Zer iritzi duzu Auzitegi Gorenak Sorturi buruz esandakoen inguruan?

Auzitegiaren erabakiak erabaki politikoaren usaina daukala uste dut. Iruditzen zait atzerapauso bako bidea hasi dela konponbiderantz, eta ezinbestekoa da normaltasunera heltzeko sentsibiltate guztiak hauteskundeetan egotea. Maiatzaren 22an lurretan aukera guztiak mahai gainean egotea espero dut; ez dago inor soberan. ■ A.Ugalde



**GURE AUKERAKO
IBILGAILU GUZTIEK
ERABATEKO BERMEA DUTE.**

ERANTZUTEN DUGU.

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Goursako Aukerako
Ibilgailuen arduraduna.



**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**

1.5 dCi 105zp. 2009 urtea.

13.500€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP Transferentziako gastuak barne 2011/04/31 arte edo izakinak amaitu arte balio duen eskaintza.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Sua zerion zeruari

Sua zerion zeruari Durango 1937ko martxoaren 31n, orain 74 urte. 400 durangar baino gehiago hil ziren eta Durango txikituta geratu zen.

Zeruari sua zerion, bai, baina faxistek piztutako sua. 74 urte pasatu dira eta durangarrok egun horretan, martxoaren 31n, urtero batzen gara ekintza basati hori arbuizatzeko eta munduko ezein bazterretan gerta ez dadin eskatzeko. Ez dugu inon zeruari sua erioterik nahi. Ez dugu 1937ko martxoaren 31n gertatutako ahazterik nahi.

Bonbardaketa hilgarriak eta suntsitzaileak arbuizatzeko urtero batzen gara elizpean durangarrak arratsaldeko 20:00etan, eta aurten ere bertan batuko gara Berbaro, Kriskitin eta Gerediaga elkarteek eratutako ekitaldian.

Baina nork bonbardatu zuen Durango? Nork agindu zuen bonbardatzea? Nork lagundu zuen bonbardaketa planeatzen?

Inoiz inork barkamenik eskatu du? Inoiz inork genozidio horren aurrean errudunak nortzuk izan ziren identifikatzeko ahaleginik txikiena egin du? Inork erantzukizunik eskatu al du? Ala durangarrak errudunak ginen eta merezitako sua bidali zigun zeruak?

Durango Udalak badu ekimen bat egun horretarako; eguerdiko hamabietan hilerriko Adiskidetasuna eta Bakea elizatzeko jarri duen oroigarrian egingo duen ekitaldia. Elizatxo kristau horretan dagoen oroigarrian faxistek eragindako gerratean hildako durangar guztien izenak jarrita daude (eta falta direnak jartzeko gogo dago). Eta hildako guztiak omenduko dira martxoaren 31n. Hildako guztiak batera, biktimak eta borroakoak batera, kristauak eta bestelakoak. Kristautasunaren babesean batera, faxistak eta demokratik oroigarri berean elkartuta. Durango 1936 Kultur Elkartea ez da egongo ekitaldi horretan, eta ez du ekitaldi hori babesten, ez baitu ulertzen martxoaren 31 gerratean hildako guztien eguna denik, bonbardaketa oriotzeko eta arbuizatzeko eguna baino. Eta ez dituelako Adiskidetasuna eta bakea horrela ulertzen. Ala adiskidetasuna eta bakea ere ezarri egin behar dira? Ez ote da batera, adostasunean, egin behar dugun bidea? Ez al daude erakundeak adostasuna lortzeko eta bideratzeko?

Gainera, Durango 1936 Kultur Elkartea bonbardaketatik erantzukizun historikoak eta politikoak eskatzeko unea badela uste du, etaildo honetatik zera eskatzen die durangarrei, Durango Udalari eta Durangoko elkartei: hausnarketa egitea, denon artean hausnarketa zintzoa eta irekia egitea gurea den oroi-men historikoari buruz.

Martxoaren 31n badugu durangarrek zertaz hausnartu, eta badugu munduari egiteko ekarpen txikitxo baina zintzoa. Bonbardaketarik ez! Genozidiorik ez!

Durango 1936 Kultur Elkartea

Inauteri, Aratuste, karnabal

Hautserre eguna da Garizuma aldiaren hasierako eguna. Eta garizuma aurreko domekan, hain zuzen, Bizkaiko herri askotan, etalagunartegiaren, 'basokoipetsuak', 'sasikoipetsuak', 'basatosteak', 'kanpora-martxoak' edo 'txitxiburduntziak' ospatuko ziran.

Oraintsu, inauteri, haratuste edo karnabal egunetan bete-betean sartuta egon gara. Zuberoako 'maskarakak', Lapurdi eta Nafarroa Behereko 'kabalkadak', Nafarroako Ituren eta Zubietako 'zanpantzarak' martxan izan dira. Arabako Zalduendon 'Markitosen pasialdia' eta bere azken-epaia ospatu dabez. Mundakako 'Atorak-musika taldea' osotzen dabenak hor ibili dira kantu kantari. Markinako zaragi dantzakoak, 'Hartza' lagun dabela, euren kalejirak egin ditue. Baita beste karnabal talde guztiak ere egun horietan urten dabe kalera, euren jaiak ospatzera.

Jai honeek, hasiera batean, antiguleko 'negu-jaietan' sartuta egozan ziur asko. Baina jai honeen zentzu zakona ulertzeko base-ri eta nekazaritza giroan egokitu beharko gara. Izan ere, sasoi honetan, uzta-batzea eginda dago, abereak kortatu dira, eta haziak ereinda dagoz. Negua da. Esan daiteke izadi guztia hilda lez dagoala.

Hori dala-eta, gure antzinako asabak, jai horietan erabiltzen zituen erritu majikoen bidez, honako honek nahi zituen lortu: espiritu gaiztoak, parte txarrekoak eta basa-piztiak uxatzea, eta izadiari zor jakon gurtza emotea, oraintsu agertu dan udabarriak oparotasuna, ugaltasuna eta bizitza ekarri egizan. Ondo gogoan izatekoa da prozesu honetan ikusten dan jokoak: negua-udabarria, hazia ereitea-hazia ernetea, heriotza-bizitza. Erlijio guztietan ikusten dan sinbolismoa.

Beste alde batetik, holako negualdiko jai batzuetan, gizonkil (muñeko) haundi batzuketarabiltzen ditue, adibidez, Nafarroako Lantzen 'Miel Otxin', Zalduendon 'Markitos', Lapurdin 'Zanpantzar', beste leku batzuetan 'Xiganteak', 'Galtzuko gizona' eta abar, eta jaien amaieran herriko plazan erreten dira, urte guztiko pekatuak eurei leporatu eta gero. Izan ere, gizon-emakume guztiok, geure kontzientziak hustu eta garbitzeko beharizana sentitzen dogu. Eta suak ere garbitu egiten dau. Sua erlijio guztietako sinbolo bat da.

Kristautasuna heldu zanean, Eleizak kristautu egin zituan hola-ko jai paganoak. Era berean, Eleizak honek neguko jai paganoak ere kristautu egin zituan, sasoi honetan Garizuma ezarriaz. Pazkoa edo Jesusen bizituera prestatzeko aldia da garizuma. Eta garizumak, hain zuzen, lehen neguko jaiak buruz aitatu doguzan sinbolo eta adierazgarriak daroaz: adibidez, negua-udabarria, heriotza-bizitza, pekatua lurperatu-bizitza barri bat bizitzeko, heriotza-berbizkunde, bariku santu-pazko eguna. Hau guztia, jakina, Jesukristogaz lotuta: Jesus geugaitik gizon egin zan, gure pekatuak leporatuz kurtze batean hil zan eta berbiztu, zeruko ateak geuri zabaltzeko. Gogoratu daiguzan lehen aitatu doguzan gizonkilak, zelan leporatzen deusezen herriko pekatu guztiak, azken batean sutan erretoko.

Hala ere, karnabal-karnabalak edo aratusteak, Erdi Aroan sortu ziran. Eta hasiera batean jai kristauak izan ziran. Hau da, olgantzeta eta alaitasunezko jai batzuk ziran, gainean etorren garizuma luzerako indarrak hartzeko. Izan ere, garizuma, otoitz, penitentzia, haragi-izte eta konbertsino aldia da. Eta hemendik, hain zuzen, jatorke etorri ere izena jai honeei; haragi iztetik, haratusteak edo haragi-izte egunak, 'carnestolendas', karnabalak.

Garizuman, bada, zabal-zabal jarri daiguzan gure bihotzak Jaungoikoaren Berba argi eta garbi onartzeko moduan.

Garizuma izan dakigula bide egokia Jaunagana bihurtzeko eta Pazkoetan Jesukristogaz batera bizitza barri batera bizitzeko.

Garitaonandia'tar Jesús, Begoñako santutegiko erretorea

Sei hankako mahaia



Mikel Basabe Aralar

Esku-hartzerik?

Asteko albistea Nazio Batuen Erakundeak Libian esku-hartze militarra erabaki duela izan da, mundu zabalean. Erabaki hori arrazoitzeko, Libiako gobernua egiten ari zen sarraskia izan du arrazoi edo aitzakia, nori galdetzen diogun. Espainiako Kongresuan bozkatuta, ezkerre zati-tu egin da botoa emateko orduan: batetik, BNG eta IUk kontrako botoa eman zuten, Nafarroa Bai ez zen eztabaidan egon, Uxue Barkos—gaixotasuna zela-eta— artean Madrilerabueztatu barik zegoelako, eta Esquerra Republicanak baiezkoa eman zuen.

Larria da herri bat militar-ki erasotzeko erabakia hartzea, eta horixe da Libiaz hartu dena, Nazio batuen babesarekin. Larria da, baina, gobernu batek bere herria bonbardatzea, eta horixe da Libiako gobernuak egin duena. Neure buruari galdetu diot zergatik Libian alde eta Iraken kontra. Baita zergatik Libian bai, baina Israelen gehiegikeriak beti dohainik. Edo zergatik ez diren neurri zibilak hartu—arma-, bidaia-, salerosketa-blokeoak, esaterako— eta zuzenean jo den esku-hartze militarra, gerrari gerrarekin erantzutera. Argi dago erabaki hipokrita izan dena Libiaz hartu dena, nazioarteko legedia urratzen duenaren kontrako neurri 'zibilik' hartzen ez delako (Maroko, esaterako, Mendebaldeko Sahararen okupatzailea), Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak organo demokratikoa ez delako (bost estatuk beto eskubidea dute, gehien-goak erabakitakoa balio barik uzteko) eta, atzo legez gaur, estatu-interesak nazioarteko legediaren gainetik jarraitzen duelako.

Dakidana da Bengasi bonbardatu ondorengo egunetan Gaddafik bere burua Francor-ekin konparatu zuzenean, ni Durangorekin gogoratu nintzela. Datorren astean, 74 urte. Orduko hartan, Europako demokraziek beste alde batera begiratzea erabaki zuten.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoaanboto
durangaldeko astekariaAnboto komunikabideak Elkartea
2011ko martxoaren 25a - 10. urtea - 409 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

JAIALDIA > ELORRION

Bertsoa eta musika Elorrioko Korrikaren aldeko barikuko jaian

Elorrioko Udalak, Arriola kulturguneak eta AEK-k elkarlanean antolaturiko ekitaldia da apirilaren 1ean Elorrion Korrikaren alde egingo duten jaialdia. Durangaldeko lau bertsolarik jardungo dute, 22:00etan hasita, Arriolan, eta **Sorkun** abeslari errenteriarrek emanaldi akustikoa eskainiko du ondoren, 23:00etatik aurrera, Ateneoan

Musika eta bertsoa biltzen dituen egitaraua antolatu dute Elorrion Korrikaren aldeko jaialdia osatzeko: Arriola kulturguneak, udalak eta AEK-k jardun dute elkarlanean. Apirilaren 1erako da proposamena. 22:00etan hasiko da jaialdia Arriolan; Durangaldeko lau

bertsolarik izango dute jaialdia zabaltzeko ardura: Gorka Lazkano berriztarrak, Eneko Abasolo "Abarkas" iurretarrak, Beñat Ugartetxea mallabitarrak eta Eñaut Uruburu abadiñarrak jardungo dute, Maite Berriozabal berriztarrak emandako gaiei Arriolako oholtzatik erantzuten.

Sorkunen kantak giro lasai eta intimoan entzungai, Ateneoan

Bertsolarien jardunaren osterrako, zuzeneko musika emanaldia ekarri dute Korrikaren aldeko jaialdirako. Ateneoan, 23:00etatik aurrera, kantatuko du Sorkun abeslari errenteriarrek. Durangaldean, aurretik, besteak beste, Durangoko Plateruenean erakutsi duen bidean darrai Sorkun kantariak azken hilabeteetan; kontzertu akustikoak eskaintzen.

Soiltasuna, bluesa, jazz...

Formatu berri horretan, giro lasai eta intimoan entzuteko eran eskaintzen ditu Sorkunek bere ibilbide musikal oparoan sortutako eta kantatutako abestiak. Horretarako leku ezin aproposagoa izango du apirilaren 1ean zuzeneko emanaldirako Elorrion: Ateneoa.

Laurogeita hamarrek hamarkadan, oso gazterik, Kashbad rock taldean hasi zenetik sei disko kaleratu ditu Sorkunek; horietan guztietan zeharreko ibilbidea burutzen du zuzeneko akustikootan.

Hasieran Kashbad taldeagaz, gero Fermin Muguruzaren Kontrabandagaz edo Vicepresidents taldeagaz jorratutako kantakeragaz alderatuta, bestelako "kontzeptua" garatuko du datorren bariatuan Ateneoan Sorkunek.

Bere ibilbideko kantak, askotariko musika osagaiekin eskaintzen ditu proiektu honetan: Skip James, J.B. Lenoiredo Howling Wolf bezalako musikarien blues doinuak barneratuz, esaterako.

Gorka Sesma, Tanausu Santana eta Juanma Urriza musikariak lagun

Blues doinu klasikoak eta hainbat bertsio ere eskainiko ditu Sorkunek

Bere ahotsaren ezaugarriekin hain ondo ematen duen blues eta jazz ikutuko kanten bertsioak ere eskainiko ditu Sorkunek: Shemekia Copland edo Madelein Peroux kantarien abestien bertsioak egingo ditu, esaterako.

Hiru musikari izango ditu Sorkunek Ateneoko zuzenekoan lagun: Gorka Sesma gitarran, Tanausu Santana baxuan eta Juanma Urriza baterian. ■ I.E.



Hasteko, Durangaldeko bertsolarien saioa Arriolan

Aurreko edizioetan legez, aurtien ere ez da bertsorik faltako laster Euskal Herria zeharkatuko duen 17. Korrikaren aldeko Elorrioko jaian ere.

Joan den udazkeneko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartu duten lau bertsolarik zabalduko dute apirilaren leheneko egitaraua. Arriolan, 22:00etan jardungo dute.

Durangaldeko lau bertsolarigaz osatu dute apirilaren 1eko Elorrioko saioko kartela: Gorka Lazkano berriztarrak, Eneko Abasolo "Abarkas" iurretarrak, Beñat Ugartetxea mallabitarrak eta Eñaut Uruburu abadiñarrak jardungo dute Arriolako hitzorduan, eta Maite Berriozabal berriztarrak emango ditu bertsotarako gaiak.

MUSIKA > FOLKA

Ahots indartsuz eta perkusioz tradizioa berritzen: Kalakan

Martxoaren 26an, Durangoko Plateruenean joko du Kalakan hirukote baigorriarrak

Baigorriko eta Bidarteko emanaldien tartean, Plateruenean eskainiko du, martxoaren 26an, Nafarroa Behereko hirukoteak zuzeneko. Ekain amaierara arte hainbat kontzertu dituzte lotuta Kalakan taldeko Thierry Biscary, Paxkal Indo eta Jean Michel Bereau musikariek; Frantzian, Suitzan eta Italian joko dute, besteak beste.

Perkusioen eta ahots indartsuen bitartez osatzen dute musika

Euskal musikaren sustraietatik edanda, baina bestelako influentziei zabalik egonda sortutakoak dira hirukote honen doinuak. "Perkusioa eta ahotsa, erritmoa eta melodia" uztartuz jarduten dute, euren berbetan.

Besteak beste, txalapartaren doinua, tradizioz aberatsenaren isla diren kantaera indartsuak, atabala, ttunttuna eta panderoa baliatzen dituzte. Kalakan taldeko kideek sorturiko perkusiorako beste instrumentu batzuk ere

Euskal Herriko doinu tradizionalak molde berrian eskainiko dituzte

baliatzen dituzte euren "musika unibertsala" eskaintzeko: hainbat perkusio instrumentu sortu dituzte taldekideek eurek.

Kontzerturako hiru sarrera bikoitz zotz egingo ditugu www.anboto.org-n. ■ I.E.



Iñaki Etxezarraga,
'Etxe'
Musikaria



Sorkuntza?

Hemen nago. Gitarra eskuetan hartuta eta geldirik. Ez dakit zeri abestu. Ez dakit zeri buruz idatzi. Bart gauen burura etorri jatan melodia ahaztu jat. Eta orain ez naz gai ezer berririk konposatzeko. Blokeo mental honekin arduratzen hasi naz. Lehengo egunean lagun batek esandako hitzak etorri jataz burura: "Telebistak eta internetek gizakion sorkuntza mugatzen dabe". Denbora batez hausnartzen ibili eta gero, horrekin ados nagoela konturatu naz. Ezer egiteko ez daukagunean errazena da telebista edo ordenagailu aurrean jartzea. Hor joaten jakuz orduak eta orduak.

Buruari bueltak emoteko denbora daukadanean ideia berriak etortzen jataz burura, baina distraitu gero bat-batean desagertzen dira. Eta gaur hori gertatu jat. Dutzatik atera naz buruan melodia bat neukala. Baina gitarra hartu eta grabatu beharrean, telebistan ematen zebilzen tertulia lelo batekin distraitu naz. Zarataka auzokideak kritikatzeko agertu den emakume baten ahotsak sofara eroan nau konturatu barik. Bertan jesarri eta ez buru ez hanka ez daukan erreportaje bat ikusten gelditu naz. Eta bat-batean konturatu naz nire lagunak arrazoiguztia daukala. Kantu eder bat izan ahal zena airean gelditu da kutxa ziztrin honek distraitu naudelako. Konturatu nazenerako beranduegi izan da.

Orain hemen nago. Gitarra eskuetan hartuta eta geldirik. Beharbada hausnarketa honen inguruan kanta bat egin behar ko dot. Hutsetik zerbait atara. Sorkuntza barik sortu. Imajinaziorik gabe zerbait imajinatu.

Beharbada ideiak ez izateari buruz idaztea ideia ona izan daiteke.

MUSIKA > EMANALDIA

Musika eskolako ikasle gazteen emanaldia gaur, Kurutze Santu Museoan

Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleak dira emanaldiko protagonistak; hamar bakarleri eta ganbera-musika talde bat

Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleak dira emanaldiko protagonistak; hamar bakarleri eta ganbera-musika talde bat

Hamar bakarlarik eta ganbera-musika egiten duen ikasle gazteen talde batek eskainiko dute gaur, martxoaren 25ean, Kurutze Santu Museoan kontzertua. Musika eskolako Alfredo Sanz zuzen-

Mozart, Shumman, Bach eta Bartók-en lanak joko dituzte, esaterako

dariak azaldu digunez, "formatu klasikoko" emanaldian, besteak beste, Bachen, Mozarten, Shummanen eta Bartóken obrak joko dituzte ikasle gazteek.

Musika eskolan ikasitakoa gainerako herritarrekin konpartitzeko musika eskolaren areotik kanpora jotzen duten lehengo aldia izango dute askok, urteroko hitzordu berezietatik eta ikasturte amaieran egiten duten emanaldiaz aparte.

Zuzeneko musika emanaldietarako pentsatua egon ez arren, "xarma berezia daukan eta akustika onekoa den" Kurutze Santu Museoa aukeratu dute gaurko emanaldi honetarako. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA


Bilboren askotariko aurpegiak islatzen dituzten argazkiak Elorrioko Iturrin

Roberto Zarrabeitia argazkilariak Bilbon, "presarik barik, oinez, kuriositatekeramanda", egindako argazkiak dira Elorrioko Iturri kultur etxean apirilaren 15a arte ikusgai dauzkagunak.

Zaharretik modernora

Bizkaiko hiriburuaren garai bakoitzaren erakusle diren leku eta xehetasunak, "zimurak", erakusten ditu Zarrabeitiaren argazkigintzan honek; "zaharretik modernora, beti bizia izan den" hiriburuan zeharreko ibilaldia da Iturri kultur etxean apiril erdialdera arte bisitariak aukeran dutena.

Industriaren hiriburua, bertan bizi den jendearena, arkitektura arrazionalaren erakuslea edo argien mendeak ekarritako "aurpegi apaindua" erakusten duen Bilbo: garai eta era askotarikoak dira Zarrabeitiaren argazkiak. ■ I.E.



goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

ERROTARITXUENA

Baldintza paregabeetan bermatutako finantzaketa duen proiektua

%100 arte finantzatutako erosketa:

BancSabadell



www.solvias.es

www.sukia.com

 **sukia**
Zure etxean zaude.

946 46 20 41

MUSIKA > LEHIAKETA

Doktors Klub durangarrak Rock Izar maketa lehiaketan

Martxoaren 31n 21:00etan, Durangoko Doktors Klub eta beste hiru talde, Plateruenean



Danbaka

Martxoaren 31n Durangoko Plateruenean joko dute Rock Izar eskolako lehenengo antolatutako duen maketa lehiaketaren bigarren finalurrekoan parte hartuko duten lau

The Howl, Oceans, Mashai eta Doktors Klub taldeen zuzenekoak

taldeek. Durangaldetik, Euskal Herriko beste hainbat lekutatik, eta, besteak beste, Madril, Katalunia eta Andaluziatik ere jaso dituzte maketa lehiaketan parte hartu gura izan duten taldeen gra-

bazioak Durangoko Rock Izar eskolan. Lehiaketaren zuzenekoetan jardun eta lehiaketaren saria eskuratu ahal izateko aukeratu dituztenetako lau taldek egue-nean Plateruenean dute euren lana erakusteko aukera: Barakaldoko The Howl, Malagako Oceans, Mashai bilbotarrak eta Durangoko Doktors Klub taldeek joko dute.

Country durangarra

Besteak beste, gitarrekin, bateria-gaz eta aho-soinuagaz, Estatu Batuetako mendebaldeko musika "country" gogora ekartzen duten kantak sortzen ditu Durangaldeko Doktors Klub laukoteak.

Elgetako Espaloian urte amaieran burutu zuten Danbaka maketa lehiaketan ere hartu zuen Doktors Klub taldeak parte, eta zuzeneko hartan ere euren doinu-n bitartez zein oholtza gaineko "eszenografia" bereziagazeroan zuten ikuslegoa AEBko "mende-baldera": lasto fardoen gainean

Gitarrek, bateriak, eta aho-soinuak osatzen dute Doktors Klub

jesarrita eta txapela buruan, prakak bakero eta alkondara koadrodunak soinean agertu ziren.

Euskarazko eta ingelesezko letrak uztartzen dituzte Doktors Klub taldean; esaterako, *Old west*, *Ametsetan*, edo *Caroline* izeneko kantak sortzeko.

Rock gogorra, countrya eta metala jotzen duten lau talde finalerdian

Plateruenean bertan, apirilaren 1ean burutuko dute lehiaketaren finala

Durangaldeko ordezkariak gainera, rock klasikoa jorratzen duten Oceans malagarrik, metal doinuak sortzen dituen Barakaldoko The Howl eta rock gogorren eta metalaren mugan diharduten Mashai bilbotarrek joko dute Plateruenean eguneko zuzenekoan. Apirilaren 1ean burutuko dute lehiaketaren finala. ■ I.E.

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

"Ikusteko oso atsegina" den obra aurkeztu dute Durangoko antzokian

Durangoko San Agustin kultur gunean izan genuen obraren zuzendaria martitzenean, antzezlanaren berri ematen

Atzo iluntzean, Durangoko San Agustin kultur gunean egin zuen Khea Ziater antzerki talde bilbotarrak *Gloriaren kantua* antzezlanaren euskarazko bertsioaren estreinaldia. Alex Gerediaga obraren zuzendariak eta Arantza Arrazolak kudeatzaileak eman zuten zuzendariak sinatutako lehenengo lanaren berri.

Arantza Arrazolak azpimarratu zuen legez, baina, aste amaiera honetako Durangokoa emanaldi bikoitza da; gaur, 20:00etan, gaztelarazko bertsioa, *La canción de Gloria* izango da Durangoko San Agustinen. Bilboko BAD jaialdian estreinatu zuten, iaz, gaztelarazko bertsio hau.

Antzerkiola Imajinarioa taldeko kide ere baden Alex Gerediaga zuzendariak azaldu duenez, "erreferente zinematografikoak, argiaren diseinu oso berezia, musika eta dantza" uztartzen dituen "ikuskitz poetikoa" da *Gloriaren kantua*. Antzerkiolaren

Zinemako erreferenteak, musika eta dantza uztartzen dituzte obran



Alex Gerediaga zuzendaria martitzenean oholtzan, prentsaurrekoaren ondoren.

azkeneko aurkeztu zuen *Babiloniako loreak* obragaz alderatuta, baina, "kontatzeko beste era bat" baliatu duela oraingoan adierazi du Gerediaga zuzendariak.

Dantza egin eta, besteak beste, gitarra eta teklatura jotzen,

Antzerkiolaren obrekin alderatuta, "kontatzeko beste era bat" darabilte

urteetako esperientzia daukaten aktoreek jardungo dute: Leire Uchak gorpuzten du Gloria, eta Na Gomesek Takk. Zuzendariaren berbetan, "ikusteko oso atsegina den obra" da gaur ere San Agustinen ikusgai dagoena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 25 22:00etan KONTZERTUA. 8-10€
BIZARDUNAK + KHAMUL

MARTXOAK 26 22:00etan KONTZERTUA. 5€
KALAKAN. T. Biscary, P. Indo, J.M. Bereu

MARTXOAK 29 20:00etan DOKUMENTALA. Doan
IZAN, EGIN ERAGIN EHE. KORRIKA 17

MARTXOAK 31-1 21:00etan LEHIAKETA. Doan
ROCK IZAR ESKOLA MAKETA LEHIAKETA
31an 2. FINAL ERDIA / 1ean FINALA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LA CANCIÓN DE GLORIA
Khea Ziater (Bilbao)
Iraunkarria Musika Banda (Durangaldea)

Martxoak 25 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburu

11:04 601 07 76 Artekale, 14 DURANGO

KIROLAK >

“Badakit gaixotasun bat daukadala, baina nire burua ez dut gaixotzat”



Diabetea ez da oztopo Jon Karrorentzat. Lanzaroteke Olinpiko Bikoitzean lehenengo hogeita hamarren artean amaitu zuen.

Jon Karro abadiñarra eredu da norbere burua gainditzeari dagokionez; diabetea izan arren, goi mailako triatloilaria da. Maia-tzean Bartzelonako Iron Man-a amaitzen badu, Europako lehenengoa litzateke.

Noiz diagnostikatu zizuten diabetea? Zein motakoa da eta zer ezaugarri ditu?

2003-2004 inguruan diagnostikatu zidaten 1 motako diabetea. Beste diabetea mota bat ere bada, 2 motakoa; pilulak hartzen dira, eta eroateko errazagoa da. Nire kasuan, egunean 4-5 aldiz jarri behar dut injekzioa. Horrez gainera, 24 orduko beste bat ere injektatu behar dut. Gaixotasun kronikoa da, zainduz ezik ondorio larriak izan ditzake; ikusmena galdu, inpotentzia... Hala ere, arazo horiek zaindu ezik agertzen dira, eta ez batzuek dioten moduan, epe luzera.

Diabeteak asko baldintzatu edo aldatu dizu egunerokotasuna?

Bai. Diabeteak bultzatu nau helburu handiagoak lortzera. Beti izan naiz kirolaria, baina diabetikoa ez banintz, ez nuke bizitza modu honetara planteatuko. Mugaturik egon arren, gauza asko egiteko gai garaia erakutsi gura diet gaixotasun bera daukaten gainerako pertsoneri; gehiago kontrolatu behar izaten dugu, baina, hala ere gauza asko lor ditzakegu.

Kirolak egiten al zenuen diabetea diagnostikatu aurretik?

Bai. Hamabi urtez txirrindularitza aritu naiz; 7-19 urte bitartean. 24 urteaz, diabetea diagnostikaturik jada, hasi zen istorioa hau: “Diabetegatik eta diabetearentzat”.

“Beti izan naiz kirolaria, baina diabeteak helburu handiagoak lortzera bultzatu nau”

Eta lehiatzerakoan, asko baldintzatzen zaitu?

Bai, noski. Trantsizioetan glukosa begiratu behar dut, kontrolatzeko. Batez ere, bizikletan noanean begiratzen dut, hirugarren trantsizioan (korrika egiten dena) indarrak hartzeko.

Nik nahiko kontrolaturik daukat, badakit noiz begiratu behar dudana, eta noiz sartu behar dudana glukosa ere. Triatloi bakoitzean distantzia jakin bat dago, ordea; ondoen doakidana

Olinpikoa deritzona da (1,5 km igerian, 40 km bizikletan eta 10 km korrika). Otsailean, adibidez, Olinpiko Bikoitz bat probatu nuen, Lanzaroten. Gehiago zaindu behar duzu, baina zorionez dena bikain joan zen: 200 lehiakidetik lehenengo 30en artean amaitu nuen.

“Ondoen doakidana Olinpikoa da: 1,5 km igerian; 40 km bizikletan; 10 km korrika”

Nola uztartu daitezke triatloia lako kirol sakrifikatu bat eta diabetea?

Segururik ibilalditxoak egitearekin nahikoa litzateke; hala ere, inkonformista naiz, eta gorputzak eta gogoak gura dutena egitea gustatzen zait. Heldu naizen mailara heltzeko, asko entzun eta ikasi behar da; baita lurrera erori eta altxatu ere. Norberak badaki non dagoen bere muga. Nik gaixotasun bat daukat, baina ez dut nire burua gaixotzat.

Oztopo handiak dituzu beste lehiakideekiko?

Funtsean, hipogluzemia bat izateko gainerako kirolariak baino 70 bider aukera gehiago ditut. Beste faktore batzuk ere aintzat hartu behar ditut. Edozelan ere,

ez dit inork igartzen diabetikoa naizenik, dakitenek bakarrik.

Orain gutxi, duatloi eta triatloi denboraldia hasi da. Zer helburu duzu?

Bi proba gako ditut aurrera begira: alde batetik, maiatzaren 14an Catalunyako Iron Man proba burutu nahi dut; lortzekotan, Europako lehenengoa nintzateke. Ondoren, Bilbon ospatuko den Iron Man Erdian parte hartu gura dut. Bi proba horiez gainera, beste hainbat lasterketatan lehiatuko naiz.

“2012an TT1 taldean arituko naiz. ‘Diabeteagatik eta diabetearentzat’ da euren leloa”

Datorren denboraldirako Team Type 1 taldearekin hitzarmena e daukazu. Zer berezitasun du taldeak? Zein izango litzateke zure rola?

Bai, egia da. TT1 txirrindulari eta triatloilar profesionalak osaturiko talde amerikar bat da; taldekide guztiek 1 motako diabetea dute, hori da taldearen berezitasun nagusia. Lehenago aipatu dudana ‘Diabetegatik eta diabetearentzat’ leloa Europan zabaltu gura dute, eta horretarako triatloilari europar bat gura dute; Europa-

JON KARRO

Jaioterria

Abadiño

Adina

31 urte

Ibilbidea

- 7-19 urte bitartean txirrindularitza.
- 7 urte triatloiak egiten.
- Laubideta triatloi taldeko kidea.

ko triatloi garrantzitsuetan (Niza, Embrun, Lanzarote, Zarautz...) taldeak ordezkari bat edukitzea da euren helburua. Aurten, baina, Orbeak babestuko nau, eta Level Bikesek ere bai... Ez dut dirua bilatzen, triatloiaz eta diabetegaz zerikusia duen edozein ekarpen ondoetorria da. Eskeroneko nago laguntzen nautenekin.

Ezagutzen duzu zure egoeran dagoen beste inor?

Diabetiko ugari ezagutzen ditut, baina ez nik egiten dudana egiten duenik. Argentinarr bat dago, eta beste bost amerikar ere bai; lantzean behin berba egiten dut eurekin.

“Kirola nire ihesbidea da, nire eguneroko ‘beste dosia’. Guztiz lagungarria zait”

Kirola lagungarria zaizu aurrera egiteko?

Bai, guztiz. Nire ihesbidea da; nire eguneroko “beste dosia”. Hala ere, pertsona guztiei aholkatzen diet kirola egitea, ez soilik diabetikoei. Aurrera egitea lortu badut, nire emazte Leire Olabe-goa, familia eta Mikel Osaren babesari esker izan da, batez ere.

Uste duzu diabetea muga bat dela triatloian lehiatzeko?

Batzuetan bai; adi egon behar dut, gorputza zelan erantzuten dabilen eta abar. Zorionez, glukosa etenik barik neurtzen duen aparatu bat ekarriko didate; ez dago merkatuan, oso garestia delako. Mila laborategira jo dugu Itziar Landajo (nire endokrinologoa) eta biok, eta batek kasu egin digu.

Diabetea eta kirolari buruzko hitzaldiak ere ematen dituzu. Jendeak eta erakundeak gehiago kontzientziatu behar dutela pentsatzen duzu?

Bai. Hasieran ohikoa da galduta ibiltzea. Ez dakizu nora jo. Nire proiektuetan nork lagundu izan dut beti, zorionez. Laguntza handiagoa egon behar da honetan hasten dabilen jendearentzat, edo diabetea ondo erregulatutik ez dutenentzat. ■ A.Maldonado.

Sapuberri, Dantxari eta Gu Lagunak maila onean

Bigarren mailako lehenengo bost postuetan sailkaturik daude eskualdeko hiru talde hauek. Sapuberri igoera postuetan dago



Hiruna berdindu zuen Sapuberrik azkeneko jardunaldian. Juanra De La Cruz

Bigarren mailan dauden eskualdeko taldeentzako denboraldi ona dela esan daiteke. Hogeita bost jardunaldiren ondoren, lehenengo bost postuetan daude sailkatuta Sapuberri, Dantxari eta Gu Lagunak taldeak. Sapuberri taldea sortu zenetik urtebete baino gutxiago igaro dela kontutan hartuta, balorazio ona egin daiteke. Bertako zenbait jokalarik ondo ezagutzen du areto futbola. Hainbat jokalaria Durangoko beste talde batetik datoz, Kurutziagatik, hain zuzen ere. Hogeita seigarren jardunaldiari dagokionez, Sapuberrik taula erdialdean dagoen Bese-karen kontra jokatu behar du. Etzi izango da partidua, Galda-kaon, 12:00etan. Gaitzago izan-go du puntuak lortzeko Dantxari

Kurutziagatik datoz Sapuberriko jokalariek gehienak

Aurreko astean 2-4 galdu ondoren, gaitz du Sasikoak mailari eustea

talde iurretarrak. Sestao B lideraren etxean jokatuko du bihar, iluntzeko 20:30ean. Puntu kopuru bera dute Sapuberrik eta Dantxarik; 54na. Hala ere, durangarrek partidua irabaztea. Aurreko jardunaldian Burgosen aurka 2-4 galdu ondoren, mailari eusteko aukera gutxiago dute durangarrek. Sasikoa 13. dago sailkaturik, 16 puntugaz. ■ A.M.

Sasikoa etxean
Bestalde, Sasikoak Sestao taldea hartuko du Landakon. Zulo-
tik irteteko beharrezkoa du talde durangarrek partidua irabaztea. Aurreko jardunaldian Burgosen aurka 2-4 galdu ondoren, mailari eusteko aukera gutxiago dute durangarrek. Sasikoa 13. dago sailkaturik, 16 puntugaz. ■ A.M.

mutilak ahalik eta itxura onena emateko asmoz zelairatu ziren. Partiduaren ondoren, amaitutzat eman daiteke DRTren aurtengo denboraldia, eta datorren denboraldira begira dute gogo. 2011/2012 denboraldirako, Ohorezko B mailari eustea izan-go du helburu talde durangarrek; arlo fisikoa lantzeari ekingo diote hemendik aurrera, Gallastegiren helburua hurrengo denboraldira jokalariek egoera fisiko hobean heltzea da-eta.

Bestalde, Euskal Ligan, Eorrio errugbi taldeak 15-10 irabazi zion Bilboko Unibertsitateko taldeari. ■ A.M.

Aurrera egiteko aukera barik geratu da DRT

Nagusitasunez (5-98) gailendu zitzairen El Salvador talde balentziarra durangarrei

Errege Kopako lehenengo norgehiagokan kaleratu dute DRT. Joan den zapatuan, hilaren 19an, final zortzirenetan, Cetransa El Salvador talde indartsua hartu zuten Arripausetan; partidua zailtasunaz ohar-tuta, Aratz Gallastegiren

Errege Kopako final zortzirenetan kaleratu dituzte Aratz Gallastegiren mutilak

Mikel Bilbao
•Radio Euskadiko kazetaria



Orain gozatzea dagokigu

Adituarentxokoa

Ikusgarria. Horixe da Miribillan Bilboko pilotaleku berriaren inaugurazio egunean gehien entzun zen berba. 3.000 zalek gozatu ahal izan zuten pilotarentzat historikoa izan zen eguna.

Hemendik aurrera hasiko da lanik handiena. Inaugurazioan eta binakako finalean pilotalekua betetzea beharbada ez da hain gaitza izango. Benetako lana ohiko jaialdietan pilotalekuko harmailek itxura ona eskaini dezaten lortzea izango da. Kontua ez da frontoia beti lepo betetzea; Aste-lenara joaten diren ohiko 400 edo 500 zaleetan ezarri dezakegu gaur egungo benetako neurria.

Aste bitan ikusiko dugu zaleen erantzuna. Enpresen asmoa barikuetako jaialdi bat Bizkaira ekartzea da. Batetik, ETBk bere mekanismoak probatzea da helburua; apirilaren 17an emango duten finalaren aurretik entrenamendu moduan baliatzea jaialdi horiek. Bestetik, bariku horietan ikusiko da zaleen benetako erantzuna. Oraingo, enpresek sarreraren prezioak jaitxi dituzte.

Hurrengo asteetan hurretik jarraitzeko beste kontu bi aipatu gura ditut. Batetik, Juanpe Azkune proiektu berri batez dator, emakumeen kirolak ere tokia izango duelarik. Bestetik, apirilaren 1ean Aitor Totorikak eskainiko duen prentsaurrekoak — Internet bidez jarraitu ahalko da— zeresana eman-go du. Enpresari durangarrek gutun bidez iragarri du pilota munduko pertsona inportantei buruz berba egingo duela, Carlos Argiñano, Pedro Garcia edo Fernando Vidarte, kasurako. Prentsaurreko gori-goria izan daiteke.

Ana Usabiaga garaile lurretako Bizkaikoloren

Kadete mailan, berriz, Ciclos Iturriagako Ziortza Isasi elorriarra bigarren sailkatu zen

Ana Usabiaga Cespa Euskadi taldeko txirrindulariak zeharkatu zuen helmuga lehenengo lurretako II. Bizkaikolore klasikoan. Bi ordu eta 31 minutu behar izan zituen 88 kilometroko ibilbidea burutzeko. Kadete

mailan, Isasi elorriarrak bigarren postua lortu zuen; Alicia Gonzalez (Gutrans) txapeldunaren denbora berdina behar izan zuen. Guztira, 66 txirrindularik parte hartu zuten lurretako Klasiko honetan. ■ A.M.



Lasterketa lehiatua izan zen lurretako klasikoak. Juanra De La Cruz



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187 Faxes: 946 205 194



Durango bonbardatzeak oroitzuz MARTXOAK 31

Martxoak 30 Asteazkena

Oroimen eguna 19:30

"Gerra-garaiko kronika. 1936-1945eko argazkigintza Euskal Herrian"
Hitzaletia eta argazki proiektzioa
Juantxo Egaña

"Goitik ikusita"

Bonbardaketa guneko argazkiaren aurkezpena
Gerediaga Elkarte

San Agustin Kultur Gunea

Antolatzaileak: Berbaro, Gerediaga, Kriskitin

Martxoak 31 Osteguna

Durango bonbardatzearen 74. urteurrena

12:00

Gerra zibilaren biktimei omenaldia kanposantuan
Autobus zerbitzua. Irteera 11:30ean
Komentukalean, Jesuiten aurrean
Antolatzailea: Durango Uda

20:00

Bonbardaketaren oroimen-ekitaldia Andra Mariako elizpean

- Aurkezpena
- Oroimen-hitzak
- Lore eskaintza
- Aurreskua
- Goraintzi-abestia kantatzea

Antolatzaileak: Berbaro, Gerediaga, Kriskitin

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Lagun Onak

Zapatuan, 16:00etan,
Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA

Zaldia - Fruiz

Domekan, 17:00etan,
Solobarrian

LEHENENGO ERREGIONALA
(emakumeak)

Iurretako - Erandioko

Domekan, 16:30ean,
Larrakozelain

HIRUGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Sondika B

Domekan, 11:30ean,
Berrizburun

Elorrio B - Itugarpe

Zapatuan, 15:30ean,
Elizalden

SASKIBALOIA

LEHENENGO AUTONOMIKA
(EMAKUMEAK)

Tabirako - Getxo

Zapatuan, 18:00etan,
Landakon

LEHENENGO ERREGIONAL
BEREZIA

Tabirako - Berri Otxoa

Zapatuan, 20:00etan,
Landakon

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Ugeraga

Zapatuan, 18:00etan,
Tabiran

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Sestao

Domekan, 12:00etan,
Landakon

EUSKAL LIGA

Sasikoa B - Aurrera Vitoria

Zapatuan, 19:30ean,
Landakon

LEHENTASUNEZKO MAILA

Presion Break -

Soloarte B

Zapatuan, 16:30ean,
Berrizburu kiroldegian

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Ezkurdia - Untoria /

Apezetxea - Zubiri

- Elezkano - Landaburu

/ Ojuel - Aldape

Eguenean, 21:30ean,
Mallabiko pilotalekuan

ERRUGBIA

EMAKUMEAK

DRT - Gaztedi

Domekan, 13:00etan,
Arripausuetan

Oraindik partidurik galdu ez duen talde bizkaitar bakarra da Iurretako

Jon Gurutz Vazquez taldeko entrenatzailearen berbetan, denboraldi "oso ona" egiten dabilta bere mutilak, eta sailkapenak ere arrazoia ematen dio; partidu guztietan batu dituzte puntuak



Mailako pitxitxiak eta gol gutxien jaso dituen atezainak Iurretakon jokatzen dute. Juanra De La Cruz

Errekorreko zenbakiak lortzen dabil aurtien Iurretako. 2010-2011 denboraldiko partidu guztietan poltsikoratu du punturen bat Jon Gurutz Vazquezek zuzenduriko taldeak; futbol maila guztiak aintzat hartuta, aurtien hori lortu duen talde bizkaitar bakarra da Iurretako. Vazquez entrenatzailearen berbetan, bere mutilak egiten dabilta denbo-

Nagusitasunez dabil lidergoa defendatzen Iurretako. 14 puntuko aldea du hirugarrenagaz

raldia "oso ona" da. "Datuak hor daude; denboraldi osoan ez dugu partidu bakar bat galdu".

Hogeita bost jardunaldiren ondoren, Iurretako sailkapeneko liderra da, 59 puntugaz; bigarren sailkatua Zaldia da, 49 puntugaz. Taldeaz gainera, jokalaria ere maila ona eskaintzen dabilta. Aldi berean, gol gehien sartu eta gol gutxien jaso dituen taldea

ere bada Iurretako. Atzean sendo dabilta Iurretarrak, eta horri esker Ipar Ircio gol gutxien jaso dituen atezaina da. Aurrealdean, berriz, zorrotz dabilta jokalaria. Mailako jokalaria golegilenetarikoa bik Vazquezek gidaritzapean jokatzen dute: Adrian Abasolok 16 gol sartu ditu, Iñigo Uriak, berriz, 14 biderrez zultatu du aurkariaren atea.

Nagusitasunez dabil defendatzen Iurretako lidergoa; 14 puntuko aldeagaz dago igoera postuetan sailkatuta. Vazquezek berbetan, "ahalik eta arinen" ziurtatu gura dute igoera. "Ahal izanez gero, Aste Santua baino lehenago igoera lortu gura dugu, baina oso gaitza izango

Vazquez: "Ahal izanez gero, Aste Santu aurretik ziurtatu gura dugu igoera"

Tabirakoren azken partidua EBA mailan

Bihar Burgoseko Unibertsitatea taldearen aurka lehiatuko dira, Burgosen bertan

Maila ahalik eta modu duinenean agurtzen saiatuko dira bihar Tomas De Castroren mutilak. Burgoseko Unibertsitatea taldearen aurka lehiatuko dira durangarrak. Bi taldeentzako EBA mailan

jokatuko duten azkeneko partidua izango da, eta ahalik eta itxura onena eskainiz agurtu nahiko dute maila. Entrenatzailearen berbetan, denboraldia "aho zapore onagaz" agurtu gura dute. Azken partidurako, De Castrok ezingo ditu jokalaria guztiak kantxaratu; besteak beste, Asier Astorkia, eta

Denboraldia amaitzean Asier Astorkiak taldea utziko duela jakinarazi du Tabirakok

Arkaitz Gurrutxaga min hartuta daude, eta Jon Agirrek ere ezingo du bihar jokatu.

Bestalde, denboraldi amaieran Asier Astorkiak taldea utziko duela iragarri du Tabirakok. ■ A.M.

Bihurrik errekor berria lortu du Berrizen

Hiru metro perimetrodun enborra esku bakarragaz moztea lortu zuen eibartarrak

Ordu eta erdi pasatxo behar izan zuen Ernesto Ezpeleta "Bihurrik"-k errekor berria ezartzeko. Hiru metro perimetrodun enborra esku bakarragaz ebaki zuen; zehazki, ordu bat, 38 minutu eta 39 segundu behar izan zituen aizkolari eibartarrak pago enborrarenak egiteko.

Joan den zapatuan, hilaren 19an, izan zen saiakera, Berrizko plazan.

Lehenagotik ere errekorrak ezarritakoa da Ezpeleta; bata 2005ean eta bestea 2008an. Bihurri eibartarra enbor handietan espezialista dela esan daiteke, beraz. ■ A.M.



Ordu eta erdian zatitu zuen enborra Bihurrik. www.bihurri.com

KIROLA EGINEZ ONDO PASA!

- **Ordutegi zabala:**
Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 23:00etara
Larunbat eta igandetan 07:00etatik 21:00etara
- **Informazio gehiago:** 09:00-13:00/17:00-21:00

Gimnasioa
Sauna
Cycling birtuala
Aparkalekua
Hainbat ekintza:
 - Power pump
 - Ars Corpore
 - Kick Power
 - Cycling
 - Pilates
 - Wing Tsun
 - Kick Boxing
 - Integral Fit
 - Dantzak
 - Wellness eta Fitness plana

www.jasokirolak.com
 Intxaurren, 54
 48200 Durango • Tel.: 94 621 60 21
 kirolerrota@jasokirolak.com

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

astehenetik
asteazkenera
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

HAIZEA ileapaindegia

Francisco Ibarra 5. lokala • Tel.: 94 681 52 61 • Durango
peluqueriahaizeadurango@gmail.com

Nutrizio zelular
aktiboa

sinthesis

kosmetika
zelular aktiboa

- 100% naturala -

- Nerea Mallabiabarrena
- Nerea estetika zentroa dauka Durangon

Kosmetika naturala

Nerea Mallabiabarrenak estetika eta masaje zentroa dauka Merche Garciagaz batera, eta bere tratamenduetan erabiltzen dituen produktu naturalez egin digu berba.

Zer abantaila dakarkigu tratamendu naturalak?

Naturala den guztiak ez dauka kontserbagaririk. Horrek iraupen laburragoa ematen die, baina osasun aldetik hobeak dira. Izan ere, epe laburrean emaitza ikusgarriak eskaintzen dituzte produktu kimikoek, baina epe luzera, gorputzak xurgatu egiten ditu, tamaina txikietan bada ere. Gorputzak horrek kanporatu behar izaten ditu, eta elementu kimikoak izatera gaitzago egiten zaio lan hori. Azkenean, giblean pilatzen dira eta arazo ugari sortu daitezke. Inguruan, krema natural hauek ditugun bakkarrak gara; Valentziatik ekartzen ditugu. Merkatuko krema gehienek baino % 40 oinarri aktibo gehiago dute.

Nutrizioan ere egiten duzu lan.

Produktu hauek ere ez daukate kontserbagaririk. Batez ere, irabiatu bat aipatuko nuke. Dietetarako edo nekeari aurre egiteko oso ona da. Kirolarientzat ere bikaina da.

Ayurveda masajeak ematen dituzue. Indian dute oinarria, eta olio beroekin egiten dira. Pertsonak bizi duen egoeraren arabera aukeratzen da olioak: erlaxatu, zirkulazioa hobetu edo estimulatu egin daiteke. Gorputz osoa lantzen da masajeagaz, ordu eta erdian.

Terapia berria ematen hasiko zarete. Bai, tratamendu kraneosakralkoa. Nerbioak askatzeaz gainera, energiak kanalizatzea bilatzen da.

ESTETIKA ZENTRUAK

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiabarrena • Merche García
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAko masaje indiarrek antistres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

Untzillatx, 5 • 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

Cristina Agirre • apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero • estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Etxea salgai Muntzaratzen. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. Tel.: 615 007 216

Atxondo. 82 m². 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi eta ganbarra. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du. Guztiz berriztua eta altzairuz hornitua. Tel.: 628 787 835

Berriz. Duplex zoragarria, 118m², 1. solairua: sukaldea, komuna, egongela, despentsa eta balkoia. 2. solairuan: 3 logela eta 2 komun. Trasteroa eta garajea. 327.000 euro. Arratsalde: 680907666.

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta komunitarioak. Guztiz jantzia. Garaje eta igerilekua. 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m². Kanpoaldera. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Berehala bizitzera joateko aukera. 199.000 euro. Tel.: 607 715 353

Durango. 94 m². Herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua. 343.000 euro. 615 760 801.

Durango. Martxoaren 8ko kalean. 3 urte. Oso polita. 80 m². Bi logela, bi komun, sukalde berria eta saloi ederra. 90m²-ko terraza. Orientazio ona. Garajea. 637 416 438

Elorrio. 65 m². Etxe berria Buzkantz kalean. 2 logela, komuna, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua. Kokapen ona, etxe polita eta eguzkitsua. 94 682 12 34

Mallabia. Baserria eta 20.000 m²-ko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 20:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

Mañaria. Bi logela handi, balkoidun egongela eta sukalde handia. Eguzkitsua. Mendira. Toki lasaian. Garaje itxia. Bi solairu. Guztiz hornitua. 615 765 646 (Jabi).

Zaldibar. 300 m²-ko base-

rria berriztuta. 28.000 m²-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625 705 997

Zaldibar. Aukera paregabea. 67 m², 3 gela, bainu-gela bat, sukaldea, egongela, balkoia eta igogailua. 946 55 03 58

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Salgai edo alokagai (abala). 74 m². 3 logela. Erdialdean. Trastelekua. Estreinatzeko. Bizitzera sartzeko prest. 634 457 201

Elorrio. 50 m²-ko atiko berria alokagai. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua. Tel.: 606 043 835

Elorrio. 45 m²-ko pisua alokagai. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Egoera onean. Garajea. 687 740 449

Zaldibar. Alde Zaharrea. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztuta. Tel.: 660 458 756

Zaldibar. Apartamentua alokagai bikote batenzako aproposa. 20:00 etatik aurrera: 94 682 73 69

ERRENTAN HARTU

Durango. Neska langilea Durango edo lurretan alokatzeko pisu bila. 667 923 891

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil alokatzeko. Tel.: 94 658 2191

lurreta. Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilta lurretan edo Durangon. Etxea jantzita. Tel.: 675 708 827

lurreta. 2 gelako etxea alokatu nahi dut. Igogailuarekin. Tel.: 660 702 203 (Idoia).

OPORRETAKO ETXEA Ainsa (Huesca). 50 m². Atiko berria alokagai udaran. Bi gela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso polita. Kanpora begira. Asteburu, aste edo hile osorako. 630674864

PISUA KONPARTITU Durango. Pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. Etxe berria. Tel.: 656 771 662

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Biltegi modura erabili daitekeen lokal bat alokagai Kalebarrian. 20 m². 200 e/hilean. 665 700 461.

lurreta. Pabiloia alokagai Arriaundiko industrialdean.

150 m² behe. 120 m² goia. Tel.: 657 79 45 52.

GARAJEAK

SALDU

Durango. Garaje itxia Tronperri kalean. 628 787 835

Elorrio. Garaje itxia Berrio-Otxoa kalean. 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Garajea San Inazio auzunean, Produsan. Tel.: 635 743 624 (Iñaki)

Durango. Garajea azoka plazaren ondoan, herri erdian. Tel.: 619 187 799.

Durango. Motorrarentzako garaje partzela alokagai, 25 euroan. Erdigunean. Saltzeko aukera: 9.000 euroan. Tel.: 665 700 461.

Durango. Plateruen plazan garajea alokagai. 65 euro hileko. Tel.: 635 735 759 (Josu)

Elorrio. Garaje itxia alokagai, kotxe bat eta trasteentzako. Nizeto Urkizu kalean dago. Tel.: 660 45 87 56.

ERRENTAN HARTU

Berriz. Garaje itxi bat behar da kotxea eta txakur txiki batenzako. 94 622 57 24/ 680 509 532. Izaskun/Jose Mari.

Elorrio. Furgoneta bat sartzen den garaje baten bila nabil alokatzeko. 679 66 63 31

Elorrio. Garaje baten bila nabil motor bi sartzeko. Tel.: 659 304 024

INFORMATIKA

SALDU

Nintendo wii salgai. Osa garri askorekin. Mandoak, nunchakuak, wii fit tabla, joakoak... Segurtasun kopiak irakurtzen ditu. 627 102 512

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxez etxe. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini eta abar. Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska euskaldun eta ikaslea asteburuetan lan egiteko prest. 646 841 206

ETXKO LANAK

Durango. Andre euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanetarako prest. 659 088 185

Durango. Prest nago portalak garbitzeko durangaldean. Tel.: 665 717 458

Durango. Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest. 615 716 232

PERTSONAK ZAINDU

Atxondo. Neska gaztea eta euskalduna aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten. Umeekin esperientzia eta autoa. Tel.: 626 196 885

Durangaldea. Haur hezkuntzako hezitzailea. Neska euskalduna eta umeak gogoko dituen goizez nahiz arratsaldez umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 666197568

Durango. Esperientziadun gaztea eta erreferentzia onak dituen interna edo externa modura lan egiteko prest. Tel.: 686 161 334

Durango. Neska euskalduna, arratsaldez edo aste bukeratan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 635 204 532 (mezua utzi)

Durango. Pertsona nagusien zainketan interna modura, gauean edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketarako edo beste edozein lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentziak. 679 769 921

Durango. Arratsaldetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. "Zaindu" programa eginda daukat eta diba kooperatiban mendeotasunarena. 616 531 309 (Ana).

Durango. Garbiketarako, jateetxeetako sukaldeetarako, umeak zaintzeko edo dendaria modura lan egiteko prest. Tel.: 619 676 044

Durango. Garbiketan jarduteko, umeak edo nagusiak zaintzeko, externa edo interna ezein orduka lan egiteko prest. Erreferentziekin. Tel.: 690 385 891.

Durango. Garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen aritzeko lan bila nabil. Goizetan 09:30-14:00 eta 18:00-21:00. Erreferentzia onak. Tel.: 681 2182 30

Durango. Lanaldi osoan edo orduka aritzeko lan bila, per-

tsona nagusien zaintzan edo garbiketan. Erreferentzia onak. Tel.: 650 61 01 94.

